



## KALITATE, INGURUMEN, SEGURTASUN ETA OSASUN POLITIKA

Kodea: Politika  
Bertsioa: 02  
Data: 2014/05/01  
1. or. 1etik

**MUSKIZKO UDALAK** etengabe hobetu nahi ditu Ingurumen Sailak eskaini eta kudeatzen dituen zerbitzuak, ingurumenaren kudeaketa udalerrian eta langileen eta Udalarekin harremanetan egon daitezkeen pertsona guztien segurtasun eta osasuna. Etengabe hobetu nahi horrek sorrarazitako kezka eta beharrezko erantzute aldera, Kudeaketa Sistema berria prestatu du Muskizko Udalak. Gure eguneroko beharrei aurre egiterakoan, Udaleko funtzionamenduan (eta, are gehiago Ingurumen Sailekoan) konpromiso irmoa daukagu zerbitzuen kalitatearekin, Ingurumenaren babesarekin eta Segurtasun eta Osasunarekin, bere prozesu guztietan. Hori dela eta, Muskizko Udaleko Gobernu Taldeak honako konpromiso hauek ezartzen ditu:

- Beharrezko neurriak ezartzea, honako hauek saihestu edo ezabatzeko: **MUSKIZKO UDALAK** (eta, bereziki, Ingurumen Sailak) aurrera eramaten dituen ekintza eta zerbitzuei, era batera edo bestera, kalte egin ahal dieten alderdiak; ingurumenari eraso egiten dioten horiek; eta segurtasun arriskuak edo osasun kalteak eragin ditzaketenak Udaleko langileengan, Udalarekin lan egiten duten enpresetako langileengan edota gure erakundeak eskainitako zerbitzuetan interesa izan dezakeen edonorengan. Horrela, gure enpresak konpromiso argia ezartzen du Segurtasunarekin eta Osasunarekin.
- Gure zereginari aplikatu ahal zaizkien legeria eta araudia betetzen direla bermatzea, arreta berezia jarrita Ingurumena eta Segurtasuna eta Laneko Osasuna arloei buruzkoetan; eta, arauzkoa ez izan arren, **MUSKIZKO UDALAK** hartzen duen edozein konpromiso betetzen dela bermatzea.
- Erakundeko langile guztiek parte hartzea eta inplikatzeko bultzatzea, Kudeaketa Sistemaren funtzionamenduan eta Politika hau garatu eta abiaraztean; bai eta langileei kualifikazio egokia eskaintzea, euren zereginak egin ditzaten ahalik eta Kalitate onenarekin, Ingurumena ahalik eta gutxien kaltetuz, eta uneoro Segurtasun eta Osasuna ahal beste bermatuz.
- Gure hornitzaile, kontratista, azpikontratista eta bezeroen artean Udalak (eta, bereziki, Ingurumen Sailak) ezartzen dituen xedapen guztiak betearaztea bultzatzea, Kalitatea, Ingurumena eta Segurtasuna eta Laneko Osasuna arloetan.
- Gure hondakinak ingurumena ahal bezainbeste zainduz kudeatu eta tratatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea bultzatuz, horrelakorik egin daitezkeen guztietan, kutsadura saihesteko eta baliabide naturalak era eramangarrian erabiltzen direla bermatzeko, eta gure ekintza guzti-guztietan energia eraginkortasunez erabiliz, horrelakorik egin daitezkeen guztietan.
- Gure ekintza guztiak etengabe hobetzearen filosofiaren barruan sartzea, eta, bereziki, zuzenean edo zeharka, honako hauengan eragina daukaten ekintzak: gure zerbitzuen edo arretaren Kalitatea, kutsaduraren prebentzioa, gure Erakundeko segurtasuna eta laneko osasuna, eta gure herritarren asebetetzea.
- Erakunde honentzat edo erakunde honen izenean lan egiten duten guztien artean politika hau hedatzea, bai eta egoki ikusten duten alde interesatu guztien artean ere; eta erakundeko maila guztietan behar bezala abiarazten dela bermatzea.

Konpromiso hauek betetze aldera, urtero-urtero, neurtu daitezkeen helburu erreal batzuk ezarri eta zabalduko ditu Gobernu Taldeak.

Bukatzeko, Kalitate, Ingurumen eta Segurtasun eta Laneko Osasunari buruzko Politika hau, urtero-urtero berrikusten du Gobernu Batzordeak, ziurtatu ahal izateko bere edukia indarrean dagoela, erakundeko balioekin bat datorrela, eta koherentea dela **MUSKIZKO UDALEKO** (eta, bereziki, Ingurumen Saileko) estrategia funtzionalarekin, bai eta herritarrek gudan jartzen dituzten itxaropenekin.

**Alkatea**